# Txirrindularien eta oinezkoen arteko elkarbizitza egokia sustatzeko kanpaina

Udalak kontzientziazio-kanpaina jarri du abian udalerriko kaleetan txirrindularien eta oinezkoen arteko elkarbizitza sustatzeko. Ekimen honek 13.000 euroko aurrekontua du, eta Getxoko herritarrek 2025eko Aurre-kontu Parte hartzaileetan egindako eskaere-tako bat da.

Keltse Eiguren Herritarren Segurtasuneko zinegotziak adierazi duenez, *"gero eta per-tsona gehiagok eragiten diete pedalei kale, parke eta pasealekuetan, espazioa parteka-tuz oinezkoekin eta ibilgailuekin. Bizikidetza hori segurua eta errespetuzkoa izan dadin, oinarrizko arauak gogorarazi eta praktikan jartzera animatu behar dugu: abiadura errespetatzea, zebra-bideak oinez gurutza-tzea, espaloietan ez zirkulatzea eta inguru-an arreta mantentzea pedalei eragiten zaien bitartean entzungailuak saihestuz, etab. Kanpaina hau kultur aldaketa horretan laguntzeko sortu da: Getxok mugikortasun jasangarrirantz aurrera egiten jarrai dezan laguntzea, inoren segurtasunari uko egin gabe. Pedalei arduraz eragitea ere bizikletan ibiltzen jakitearen parte da"*.




Bi pertsonaia alai, txakur bat eta kateme bat, dira kanpainaren protagonistak, eta herritarrei galdetuko zaie ea benetan daki-ten zer esan nahi duen hirian bizikletak era-biltzeak: ezarritako abiadura muga errespe-tatzen duten, oinezkoen eremuak oinez gurutzatzen dituzten, pedalei eragiten dieten bitartean aurikularrak erabiltzen dituzten...

Horretarako, material grafikoa jarri da autobus-geltoki batzuetako markesinetan, eta, sare sozialetan, dibulgazio bideoak zabaltzen ari dira eta online joku bat proposatu da (https://getxobizi.eus/), bizikletaren jardunbide egokiei buruz. Halaber, egungo araudia kontsultatzeko aukera ematen du, eta bizikleten edozein erabiltzailerentzat kontsulta azkarreko gida eskaintzen du.

# Campaña para una adecuada convivencia entre ciclistas y peatones

El Ayuntamiento ha puesto en marcha una campaña de concienciación para promover la convivencia entre ciclistas y peatones en las calles del municipio. Esta iniciativa, que tiene un presupuesto de 13.000 €, es una de las peticiones realizadas por la ciudadanía getxotarra en los Presupuestos Participativos 2025.

Como ha señalado la concejala de Seguridad Ciudadana, Keltse Eiguren, "*cada día son más las personas que pedalean por calles, parques y paseos, conviviendo con peatones y vehículos. Para que esa convivencia sea segura y respetuosa, necesitamos recordar y animar a poner en práctica las normas básicas: respetar la velocidad, cruzar los pasos de cebra a pie, no circular por aceras y mantener la atención al entorno evitando auriculares mientras se pedalea, etc. Esta campaña nace para acompañar ese cambio cultural: ayudar a que Getxo siga avanzando hacia una movilidad sostenible, sin renunciar a la seguridad de nadie. Pedalear de forma responsable también forma parte de saber andar en bici*".




Dos simpáticos personajes animados, un perro y una gata, protagonizan esta campaña en la que se pregunta a la ciudadanía si realmente conoce lo que supone ser personas usuarias de bicicletas en la ciudad: si respetan el límite de velocidad establecido, si cruzan a pie las zonas peatonales, si usan auriculares mientras pedalean…

Para ello, se ha colocado material gráfico en las marquesinas de autobús y, en redes sociales, se difunden videos divulgativos y se propone un juego online (https://getxobizi.eus/), sobre buenas prácticas en la bicicleta. También permite consultar la normativa vigente y ofrecer una guía de consulta rápida para cualquier persona usuaria de bicicletas en Getxo.